



HEZKUNTZA. IKASTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN NESKA-MUTIKOEI LAGUNTZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK. 2026-2027 IKASTURTEA.

Kultura eta Hezkuntza Saila
Hezkuntza Zerbitzua

Egiaztatzeko kode segurak (EKS) agiri elektronikoen kopien osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du helbide honetan:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

Agiri honek sinadura elektronikoa darama Sinadura Elektronikoa buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.

Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020 de 11 de noviembre reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	MARIA JESUS PORTILLO TORRE (Jefatura de Servicio de Educación)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) CSV (Código Seguro de Verificación)	XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ	Data eta Ordua Fecha y Hora	04/06/2026 13:13:28
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	1/11
 XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ			



IKASTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN NESKA-MUTIKOEI LAGUNTZEKO DEIALDIA ETA OINARRIAK. 2026-2027 IKASTURTEA.

1. ERREGULAZIOA

Deialdi honetako dirulaguntzak, bertan aurreikusitakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregulamenduak (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren (aurrerantzean, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra). Ordenantza hori 2023ko apirilaren 21eko Osoko Bilkuran onartu zen, eta 2023ko uztailaren 28an argitaratu zen ALHAOn, Vitoria-Gasteizko Udalak ematen dituen dirulaguntzak emateko prozedura arautzeko oinarri orokorrak ezartzeko.

Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrera jo behar dute, ezagutzeko entitateek bete behar dituzten baldintzak eta betebeharrak, dirulaguntzak justifikatzeko modua, etab.

2. HITZAURREA

Gasteizko hiriak, Hiri Hezitzaile den aldetik, badu asmo osoz gauzatu nahi duen helburu bat: bertan bizi diren pertsona guztien prestakuntza, sustapena eta garapena. Ildo horretatik, hezkuntza inklusiboaren esparruko jardueren bidez, bere egiten du aniztasunari erantzun beharra, hezkuntza inklusiboak pertsona guztiek, aukera-berdintasunez, ekitatez eta bidezkoa denez, kalitatezko hezkuntza eskura izatea bermatu behar duela ulertuta; mehatxu handienak jasaten dituzten kolektiboek erreparatuko die bereziki hezkuntza horrek, hau da, desorekak eragin ditzaketen egoera gehien pairatzen dituzten kolektiboek. Dirulaguntzen deialdi hau testuinguru horretan biltzen da, hain zuzen.

3. DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

Dirulaguntzen deialdi hau 2025eko urtarrilaren 17an Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2025-2027) jasota dago.

Dirulaguntzen deialdi honen xedea hau da: 2026-2027 ikasturtean Vitoria-Gasteizko ikastetxeek laguntza ekonomikoa ematea, Lehen Hezkuntzan matrikulatuta dauden eta ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntza psikopedagogikoa jaso dezaten.

4. ERAKUNDE HARTZAILEAK ETA IKASLE ONURADUNAK

Vitoria-Gasteizko ikastetxeak izango dira laguntzen hartzaileak, zehazki, Lehen Hezkuntzan irakaskuntza gauzatzen dutenak. Hala, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntza emateko erabiliko dute, betiere Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak (Kultura eta Hezkuntza Saila) onartzen badu, ikastetxeek aurkezten dituzten eskaerekin eta txostenekin bat etorri.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du helbide honetan:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
Agiri honek sinadura elektronikoa darama Sinadura Elektronikoa buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.
Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020 de 11 de noviembre reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	MARIA JESUS PORTILLO TORRE (Jefatura de Servicio de Educación)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguria CSV (Código Seguro de Verificación)	XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ	Data eta Ordua Fecha y Hora	04/06/2026 13:13:28
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	2/11





Laguntza horien hartzaile nagusiak Lehen Hezkuntzan matrikulatuta dauden ikasleak izango dira; zehazki, ikasteko arazoak dituztenak eta 2025-2026 ikasturterako Eusko Jaurlaritzaren beka jaso dutenak, Hezkuntza Sailburuaren 2025eko uztailaren 28ko Aginduaren esparruan (2025eko abuztuaren 8ko ALHAOn 149. zenbakian). Agindu horren bidez, unibertsitatetik kanpoko mailetan ikasleak eskolatzeko beka eta laguntzen deialdia egin da, baina hortik kanpo geratuko dira testuliburuaren eta material didaktikoaren erabilera solidario eta bidezkorako programako beka.

Premisa horiek abiapuntu hartuta, hauek izango dira, beraz, 2026-2027 ikasturterako laguntzen ikasle hartzaileak:

- 2025-2026 ikasturtean laguntza horien onuradunak izan diren Lehen Hezkuntzako ikasleak, ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko 2025-2026 ikasturteko deialdiko 4. klausularen babespean (2025eko ekainaren 20ko ALHAOn 69. zenbakian), betiere 2025-2026 ikasturtean beka horiei uko egin ez badiete eta erakunde publikoetatik pareko laguntzarik jasotzen ari ez badira.
- Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak, 2025-2026 ikasturteko deialdian parte hartu dutenak, ikasturtean zehar deialdi horri uko egin dioten ikasleen ordez eta erakunde publikoen aldetik antzeko laguntzarik jasotzen ez dutenak.
- Deialdi honek bultzatzen duen laguntza psikopedagogikoa lehen aldiz eskatzen duten Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak, betiere erakunde publikoetatik pareko beste laguntzarik jasotzen ari ez badira.

Salbuespen gisa, eta betiere ezohiko baldintzarik badago, Hezkuntza Zerbitzuak baloratu ahal izango du deialdiaren oinarrietan adierazten ez diren Lehen Hezkuntzako ikasturteetan matrikulatutako haurrei dirulaguntzak emateko proposamena.

5. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Kultura eta Hezkuntza Sailak (Hezkuntza Zerbitzuak) 2026-2027 ikasturterako, gehienez ere, 170.000,00 euroko kreditua bideratuko du deialdira, honela banatuta:

- 77.350,00 euroko gehieneko kreditua dago 2026ko Udal Aurrekontuko 2319 02 3261 48004 partidaren kontura.
- 92.650,00 euroko gehieneko kreditua 2027ko Udal Aurrekontuaren kargura betiere baldintza hau betetzen bada: kreditu egokia eta nahikoa egotea deialdi honetara bideratuta dagoen 2027ko Udal Aurrekontuan.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du helbide honetan:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
Agiri honek sinadura elektronikoa darama Sinadura Elektronikoa buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.
Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020 de 11 de noviembre reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	MARIA JESUS PORTILLO TORRE (Jefatura de Servicio de Educación)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	04/06/2026 13:13:28
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	3/11
 XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ			



6. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN EKINTZAK

6.1.- Deialdi honek laguntza emango du ikaskuntza-prozesuan, Gasteizko kabinete psikopedagogikoei egindako eta ikastetxeek proposatutako saioen bidez. Saioen kopurua deialdi honen ebazpenean zehaztuko da, eta onartutako eskaeren arabera izango da.

6.2.- Saio horiek ikaskuntza-prozesuan zailtasunak dituzten ikasleei laguntzeko izango dira. Artatuko diren premiak gaitasun linguistikoaren garapenarekin lotuta egongo dira, baita garapen emozionalarekin lotutako eta arreta individualizatua ematea gomendatzen duten izaera psikopedagogikoko beste batzuekin ere.

6.3.- Saioak banakakoak zein taldekoak izango dira, eta kabinete psikopedagogikoen egoitzan egingo dira. Salbuespen gisa, Hezkuntza Zerbitzuak, alde aurretik idatziz eta ikastetxe zuzendaritzak behar bezala justifikatuta, saioak ikastetxean bertan egiteko baimena eman ahal izango du.

Ikastetxeek ikasleen talde-arretarako proposamenak aurkeztuko dituzte (gehenez 3 ikasle), hizkuntza-gaitasunaren garapenarekin lotutako zailtasunak badituzte, eta banakako proposamenak gainerako ikasleentzat, hots, garapen emozionalari lotutako arazo psikopedagogikoak dituztenentzat.

Ikastetxeek honako hauek jakinaraziko dizkiete kabinete psikopedagogikoei: zenbat saio ezarri dituzten, banakoak ala taldekoak diren, deialdi honen hartzaileak ez diren neska-mutikoei ezin dutela parte hartu saioetan eta, orokorrean, kabinete psikopedagogikoei parte hartzen duten inarrietan jasotako eduki guztiak.

6.4.- Saioek ordubeteko iraupena izango dute, eta 2026-2027 ikasturtean zehar egingo dira.

6.5.- Kabinete psikopedagogikoei familiekin komunikatzea eta orientazioa ematea xede duen lan-ildoan ere garatuko dute, 30 minutuko saioen bitartez. Saio horien kopurua deialdi honen ebazpenean ezarriko da, eta onartutako eskabideen kopuruaren arabera izango da. Saio horietan, familiak ez ezik, ikasle onuradunen aholkulariek zein tutoreek parte hartu ahal izango dute, egokituz hartzen bada.

Kasu honetan ere, saioak kabinete psikopedagogikoen egoitzan egingo dira.

7. ESKABIDEAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA

7.1.- Aurkezteko epea: eskabideak eta agiriak aurkezteko epea oinarri hauen deialdiari dagokion testua ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2026ko irailaren 18ra arte egongo da irekita (egun hori ere barne). Eskabideak epeaz kanpo aurkeztea arrazoi izango da dirulaguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko.

7.2.- Eskabideak aurkezteko lekua: eskabideak herritarrentzako arreta-bulegoetan aurkez daitezke, bai eta Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa eta lege aurreikusitako gainerako moduetan ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren ildotik.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du helbide honetan:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
Agiri honek sinadura elektronikoa darama Sinadura Elektronikoa buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.
Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020 de 11 de noviembre reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	MARIA JESUS PORTILLO TORRE (Jefatura de Servicio de Educación)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	04/06/2026 13:13:28
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	4/11


XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ



8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Ikastetxeko zuzendariak sinatutako Gasteizko Udalari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria (SSUN_001 eranskina, udalaren webgunean eskuragarri), Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorren ereduaren arabera.
- eranskina: Txosten teknikoa (ANDA_001 eranskina, udalaren webgunean eskuragarri): bertan adierazi beharko da, ikasle bakoitzaren egoerari buruzko informazioa, eskatutako arreta taldekoa edo banakakoa den zehaztuz, eta proposatzen den kabinete psikopedagogikoa. Informazio hori zentroko aholkulariak egingo du, Zuzendaritzaren oniritziarekin.
- Eranskina: Eusko Jaurlaritzaren beka jaso duten ikasleen zerrenda (ANDA_002 eranskina, udalaren webgunean eskuragarri): Ikastetxeko zuzendaritzaren erantzukizunpeko adierazpena, saioetan parte hartzeko proposatutako ikasleak Eusko Jaurlaritzaren bekaren onuradun direla egiaztatzen duena, Hezkuntza sailburuaren 2025eko uztailaren 28ko Aginduaren arabera (2025eko abuztuaren 8ko ALHAOn 149. zenbakian). Agindu horren bidez, unibertsitateaz kanpoko mailetako ikasleak eskolatzeko ikasketa-bekak eta -laguntzak deitzen dira, eta kanpoan geratzen dira testuliburuak eta material didaktikoa modu solidarioan eta ekitatiboan erabiltzeko programako bekak.

Gasteizko Udalak deialdiaren ebazpena hobeto hornitzeko egoki irizitako agiri osagarriak aurkezteko eskatu ahal izango du.

Hezkuntza Zerbitzuan dirulaguntza lehen aldiz eskatzen bada, edota datuak aldatu badira, honako hauek ere aurkeztu behar dira:

- Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.
- Banku-erakundeak emandako ziurtagiri eguneratua; agiri horretan, kontu-zenbakia eta kontuaren titularra agertuko dira, kontuan hartuta, betiere, ikastetxeak izan behar duela titularra.

Eskabideak deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, organo eskudunak interesdunari eskatuko dio hamar eguneko epean zuzen dezala, eta adieraziko dio, hala egin ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan emandako ebazpenaren ondoren.

9. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

9.1.- Ikasleek, gehienez ere, bi ikasturtetan parte hartu ahal izango dute laguntza deialdi honen xede den arreta psikopedagogikoan.

Deialdi honen esparruan, lehen aldiz laguntza hauen onuradunak diren Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek 2027-2028 ikasturtean beste laguntza bat jasotzeko aukera izango

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du helbide honetan:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
Agiri honek sinadura elektronikoa darama Sinadura Elektronikoa buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.
Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020 de 11 de noviembre reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	MARIA JESUS PORTILLO TORRE (Jefatura de Servicio de Educación)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru CSV (Código Seguro de Verificación)	XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ	Data eta Ordua Fecha y Hora	04/06/2026 13:13:28
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	5/11
 XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ			



dute, betiere horretarako aurrekontu zuzkidura nahikoa dagoenean, eta ikasturte horretarako laguntzen deialdia deialdi honen berdina edo parekoa bada.

Bestalde, deialdi honen ikasle onuradunek, aurreko ikasturteko deialdian ere onuradun izan badira, ezingo dute 2027-2028 ikasturteko deialdian laguntza hori jaso, baldin eta laguntza horren xedea deialdi honen berdina edo parekoa bada.

9.2.- Ikasle onuradun horiek laguntza psikopedagogiko hori jasotzeko, ikastetxeak aurretiaz jaso beharko du, idatziz, familiaren edo beren legezko tutoreen baimena saio horietara joateko, baita prozesuan duten konpromisoa eta inplikazioa ere. Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak (Kultura eta Hezkuntza Saila) ikastetxeei eskatu ahal izango die, edozein unetan, baimen horiek aurkeztea (5. Eranskina: Baimen dokumentua- ANDA_005 udal webgunean eskuragarri).

9.3.- Ikastetxeetako aholkulariek egingo dute laguntza hori jasotzen duten ikasleen bilakaeraren jarraipena. Hala, kabinete psikopedagogikoekin harreman ona izatea bermatuko dute, baita ikasle onuradunen familiekin edo legezko tutoreekin ere.

Bestalde, Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak, egokitzat ikusten duenean eta norberaren jarraipena egiteko, ikastetxe horien informazioa jaso ahal izango du, baita kabinete psikopedagogikoetatik ere.

9.4.- Ikasle batek justifikatu gabe bi aldiz huts egiten badu, laguntza bertan behera geratzea ekarriko du.

9.5.- Behin ikasturtea hasita bajaren bat edo uko egiteren bat gertatuz gero, ikastetxeak egoera horren berri eman beharko dio Udalaren Hezkuntza Zerbitzuari, Kultura eta Hezkuntza Saila, oinarri espezifiko hauei erantsitako 3. eranskinaren bidez- Uko egiteko/ordezkatzeko dokumentua (ANDA_003, udal web gunean eskuragarri). Ikastetxeak, dokumentu berberan, proposatu ahal izango du baldintza berberak betetzen dituen beste ikasle batekin ordezte eta lehenengo ikasleak baja eman edo uko egin ondoren egin gabe geratu diren saioen kopurua jasoko du. Proposamenak Hezkuntza Zerbitzuaren oniritzia izan beharko du.

Ordezkapena bidera ezina izango balitz, ikastetxeak, ikastetxeko zuzendaritzak sinatutako idazki baten bidez, proposatu ahal izango du bajaren ondorioz egiteke dauden saioak gainerako ikasle onuradunen artean banatzea, eta Hezkuntza Zerbitzuaren oniritzia izan beharko du.

9.6.- Ikastetxeak bere gain hartuko du deialdi honen esparruan esku hartzen duten kabinete psikopedagogikoei eginiko saioei dagozkien fakturen ordainketa.

Kabinete psikopedagogikoei ordaintzeko, gehienez ere, 28,00 euroko dirulaguntza emango zaio ikastetxeari, saioko eta orduko. Bestalde, taldeko saioen kasuan, gehieneko dirulaguntza 43,00 eurokoa izango da saioko eta orduko.

Familiei eta, hala badagokie, aholkulariei eta/edo tutoreei zuzendutako saioak banakakoak eta espezifikoak izango dira, baita ikasleekiko esku-hartzea talde-saioen bidez egiten denean ere. Saio horiek 30 minutu iraungo dute, eta gehienez ere 14,00 euroko dirulaguntza izango dute 30 minutuko saio bakoitzeko.

9.7.- Ikastetxeek kabinete psiko pedagogikoei eskatuko dizkiete ikasle onuradunei arreta eskainiko dieten pertsonen ezezko ziurtagiria, zehazki, Sexu Delitugileen Erregistro Nagusiak

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du helbide honetan:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
Agiri honek sinadura elektronikoa darama Sinadura Elektronikoa buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.
Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020 de 11 de noviembre reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	MARIA JESUS PORTILLO TORRE (Jefatura de Servicio de Educación)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru CSV (Código Seguro de Verificación)	XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ	Data eta Ordua Fecha y Hora	04/06/2026 13:13:28
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	6/11


XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ



igorritakoa. Espainiako nazionalitateker ez duten pertsonen kasuan, ziurtagiri negatibo horrez gain, dagokien herrialdeko nazionalitatearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Hezkuntza Zerbitzuak ikastetxeei eskatu ahal izango die, edozein unetan, ziurtagiri horiek aurkeztea.

Urtarrilaren 15eko 1/1996 Legeak, Adin Txikikoen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea Partzialki Aldatzekoa, haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatu duena, Boluntarioei buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak eta Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa ezartzen dute adingabeekin ohiko harremana izatea eskatzen duten lanbide, ofizio eta jardueretan sarbidea izateko baldintza izango dela epai irmo baten bidez sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituengatik zigorrik jaso ez izana.

10. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Dirulaguntzak hainbanaketa bidez emango dira, 11. puntuan ezarritako irizpideen arabera.

Eskaerak jaso, baldintzak egiaztatu eta izapidetzeko onartu ondoren, txosten tekniko eta ebazpen-proposamena egingo dira, oinarri hauetan ezarritako irizpideekin bat etorriz.

Horretarako, kide anitzeko organo bat eratuko da eskaerak eta emango diren laguntzen proposamena aztertzeko. Organo horretan, honako hauek egongo dira: Hezkuntza Zerbitzuko burua, Hezkuntza Ekintzen Ataleko arduraduna eta atal bereko teknikari bat.

Kultura eta Hezkuntza Saileko Hezkuntza Zerbitzuak ofizios egingo ditu dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen diren jarduerak.

Aipatutako organoak eskumenak izango ditu dirulaguntzak emateari buruzko edozein zalantza argitzeko. Eskabide guztien balorazioa jaso eta gero, txosten tekniko bat egingo du, eta deialdi honen ebazpen-proposamena Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkariari igorriko dio, geroago ebatz dezan, zeinek, Tokiko Gobernu Batzarrak diru laguntzen arloan eskumenak eskuordetzeko 2025eko maiatzaren 16ko akordioaren arabera, deialdi hau ebazteko eskumena duen eta akordio horren lehenengo ataleko gainerako eginkizunak ere bai.

11. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

Dirulaguntzaren zenbatekoa ikasle bakoitzarekin egingo den gehieneko saio kopuruaren arabera izango da, kontuan izanda onartutako ikasleen kopurua eta ikastetxe bakoitzak proposatutako saioak banakoak edo taldekoak diren.

Ikasle onuradunak zehaztean, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Proposatutako ikasleek baldintzak betetzea.
- Ikastetxeek proposatutako ikasleen beharrak, Hezkuntza Zerbitzuak baloratu ditzan.
- Zenbat denbora egon diren programan, eta zer emaitza lortu dituzten ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoentzako 2025-2026 ikasturteko laguntza deialdiaren ikasle onuradunek (2025eko ekainaren 20ko ALHAOn, 69 zb.).

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du helbide honetan:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
Agiri honek sinadura elektronikoa darama Sinadura Elektronikoa buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.
Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020 de 11 de noviembre reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	MARIA JESUS PORTILLO TORRE (Jefatura de Servicio de Educación)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	04/06/2026 13:13:28
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	7/11
 XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ			



12. EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA

12.1. Deialdiaren ebazpena gehienez hiru hilabeteko epean emango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan berariazko ebazpenik eman ez bada, dirulaguntzaren eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

12.2. Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) eta Gasteizko Udaleko iragarki-oholean egingo dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen irizpideei jarraikiz.

12.3. Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, alde zuzenetik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri, egintza berariaz edo ustez ebatzi arte. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; bestela, edozein unetan jarri ahal izango da, berariazko araudiaren arabera administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hala ere, interesdunek egokitzat jotzen duten beste edozein gauza dezakete, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

13. EBAZPENAREN ALDAKETA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 64. artikuluan arabera, laguntza emateko ebazpena eman ondoren, onuradunak haren edukia aldatzeko eskatu ahal izango du, oinarri arautzaileetan horretarako aurreikusitako inguruabarrak gertatzen badira, legearen 17.3 l) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta hori baimendu ahal izango da, baldin eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez baditu.

14. DIRULAGUNTZA ORDAINKETA ETA JUSTIFIKATZEKO MODUA

14.1. Dirulaguntza ordaintzea: Udalak ordainketa alde zuzenetik egingo du, bi zatitan: lehen ordainketa, 2026ko Udal Aurrekontuaren kargura, eta bigarren ordainketa, 2027ko Udal Aurrekontuaren kargura, baldin eta 2027ko Udal Aurrekontuan xede horretarako kreditu egokia eta nahikoa badago.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du helbide honetan:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
Agiri honek sinadura elektronikoa darama Sinadura Elektronikoari buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.
Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020 de 11 de noviembre reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	MARIA JESUS PORTILLO TORRE (Jefatura de Servicio de Educación)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) CSV (Código Seguro de Verificación)	XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ	Data eta Ordua Fecha y Hora	04/06/2026 13:13:28
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	8/11
 XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ			



Dirulaguntza ez da ordainduko, erakunde onuradunak ez badu Udal honek emandako beste dirulaguntza bat zuritu, edo ez badu lehenago emandako beste dirulaguntza bat itzuli horrela eskatu zaionean.

Erakunde onuradunek Hezkuntzako Udal Zerbitzuak egin beharreko kontrol- eta egiaztapen-jarduerak bete beharko dituzte, bai eta Gasteizko Udaleko Kontu Hartzailatza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1998 Legean edo eskumen hori esleitua duten beste organo batzuetan aurreikusitakoak ere.

Nolanahi ere, Hezkuntza Zerbitzuak, justifikazioa egiaztatze fasean, erakunde onuradunak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa azkenean gauzatutako eta justifikatutako zenbatekoarekin bat datorrela egiaztatuko du. Azkenean gauzatutako zenbatekoa txikiagoa bada, hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da. Dena den, behar ez bezala justifikatutako zenbatekoak (osorik edo zati batean) eta dagozkien berandutze-interesak itzuli egin beharko dituzte, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37.1 b) eta c) artikuluetan ezarritako kasuetan.

14.2.- Dirulaguntza justifikatzeko epea:

2026-2027 ikasturterako emandako dirulaguntzaren justifikazioa behin bakarrik egingo da, 2027ko ekainaren 18an baino lehen, egun hori barne.

Ezarritako justifikazio-epea igaro eta justifikaziorik aurkeztu ez bada, Hezkuntza Zerbitzuak onuradunari eskatuko dio hamabost egun balioduneko epe luzaezinean aurkezteko. Justifikazioa aurrez ezarritako epean aurkezten ez bada, itzulketa eskatuko da eta, hala badagokio, dagokion zehapen-espedientea hasiko da. Justifikazioa epe horretan aurkezteak ez du onuraduna salbuesten izan ditzakeen zehapenetatik.

14.3.- Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) Egindako programaren oroitidazkia (ANDA_004 eranskina, udalaren web orrian eskuragarri). Txosten horrek atal hauek zehaztuko ditu:

- Ikaslearen datuak eta laguntza justifikatzen duten beharrak.
- Bertaratzeari buruzko datuak. Jasotako saioen kopurua, huts egiteak eta huts egite horien justifikazioa.
- Ikasleen eboluzioa. Saiotara bertaratzearen ondorioz, eskolako emaitzak eta/edo jarrera eta interesa hobetzea.
- Emandako laguntzaren balorazioa. Ikaslearen aprobetxamendua, gauzatutako laguntzan mesede egiten duten edo eragin negatiboa izan duten inguruabarrak eta abar.
- Familiekin edo legezko tutoreekin eginiko lanaren balorazioa, bai ikastetxeak eginikoa, bai kabinete psikopedagogikoen eginikoa.

b) Euskararen erabilerari buruzko jarraipen-fitxa, diruz lagundutako zerbitzua garatzeko erabilitako euskarrietan hizkuntza ofizialak idatziz erabiltzeari buruzkoa, bai eta hizkuntza

Egiaztatze kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du helbide honetan:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
Agiri honek sinadura elektronikoa darama Sinadura Elektronikoa buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.
Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020 de 11 de noviembre reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	MARIA JESUS PORTILLO TORRE (Jefatura de Servicio de Educación)		
EKS (Egiaztatze Kode Seguru) CSV (Código Seguro de Verificación)	XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ	Data eta Ordua Fecha y Hora	04/06/2026 13:13:28
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	9/11


XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ



horiek ahoz erabiltzeari buruzkoa ere (FSUE_001 eranskina, udalaren web orrian eskuragarri).

c) Justifikazio-kontua arrunta (CUJO_001 eranskina, udalaren web orrian eskuragarri). Deialdi honen kasuan, atal hauek bakarrik bete beharko dira:

- 1. atala. Proiektua edo jarduera beste erakunde publiko edo pribatu batzuek ere finantzatzen badute eta/edo erakunde onuradunak baliabide propioak baditu, bete egin beharko da.
- 2. atala: zerbitzu profesionalen proiektu-azpiatalari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda, kabinete psikopedagogikoa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa identifikatuz. Horrekin batera, kabinete psikopedagogikoei igorritako jatorrizko fakturak aurkeztuko dira. Faktura horietan, saio-kopurua, gauzatze-aldia, jaulkipen-data, zenbatekoa eta horiek ordaindu direla egiaztatzen duen agiria jasoko dira.
- 3. atala: Diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
- Eta zinpeko aitortpena, deialdi honetarako honako hauek zehazten dituena:
 - Erantzukizunpeko adierazpena, fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburua gauzatzeko sortu zirela eta Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla adierazten duena.
 - Proiektua garatzeko soldatapeko langilerik ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena.
 - Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirulaguntzarik edo diru-sarrerarik jaso bada, jatorriaren eta jasotako zenbatekoaren xehetasunak adierazi behar dira, edo, hala badagokio, beste laguntzarik edo dirulaguntzarik ez dela jaso adierazi.

d) Banku-sarreraren ordainketa-gutuna, justifikatu gabeko zenbatekoak itzuli behar badira.

15. ERAKUNDE ONURDADUNEN BETEBEHARRAK

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen onuradun diren erakunde honako betebeharrak dituzte:

- Diruz lagundutako jarduerak eragin ditzakeen arriskuen arduraren hartzea eta, hala badagokio, aseguru egokia hitzartzea.
- Diruz lagundutako jarduerak irisgarriak diren lokal edo espazioetan egingo dira, abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, Irisgarritasuna Sustatzekoak, xedatzen duenarekin bat etorrita (EHAA, 1997ko abenduaren 24koa); eta, horrez gain, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak, hiri-inguruen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzen buruzkoak (EHAA, 2000ko ekainaren 12koa), garatutako arau teknikoak bete beharko dira.
- Diruz lagundutako jarduerak eta proiektuak liburuxken, kartelen, buletinen eta blog elektronikoaren bidez nahiz oro har herritarrei zuzendutako beste edozein euskarriaren bidez zabaltzean, bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, euskara eta gaztelania, eta

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du helbide honetan:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección:
<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>
Agiri honek sinadura elektronikoa darama Sinadura Elektronikoari buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua.
Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020 de 11 de noviembre reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	MARIA JESUS PORTILLO TORRE (Jefatura de Servicio de Educación)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguruak) CSV (Código Seguro de Verificación)	XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ	Data eta Ordua Fecha y Hora	04/06/2026 13:13:28
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	10/11


XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ



hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzen direla bermatu beharko da. Baldintza hori betetzen ez bada, dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharko da. Betebehar horren jarraipena egingo da, elkarre onuradunak aurkeztutako dokumentazio guztia aztertuz.

- Sexu Delitugileen Erregistro Orokorrean deliturik ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria: urtarriaren 15eko 1/1996 Legeak, Adingabearen Babes Juridikoarenak, Kode Zibila eta Prozedura Zibileko Legea hein batean aldatzen dituenak (haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen 26/2015 Legeak, uztailearen 28koak, aldatu zuen), Boluntariotzari buruzko 45/2015 Legeak, urriaren 14koak, eta Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak haxe xedatzen dute: normalean adingabeekin egotea eskatzen duten lanbide, ofizio eta ekintzetan sarbidea izateko baldintza izango da epai irmo baten bidez sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituengatik zigorrik jaso ez izana. Horretarako, dirulaguntzaren onuradun izan diren erakundeek jarduera horiek gauzatzeko kontratatutako langileei zera eskatuko diete: Sexu Delitugileen Erregistro Nagusiaren ezezko ziurtagiria, Erregistro horrek berak emana. Espainiako nazionalitatea ez duten pertsonen kasuan, ziurtagiri horrez gain, beren nazionalitateari dagokien herrialdeko ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Ezezko ziurtagiri horiek aurkezteko eskatu ahal izango die udalak erakunde onuradunei edozein unetan.
- Ez sortzea zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa dakarren programa, proiektu edo jarduerarik.
- Eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean jasotako gainerako betebeharrak.

16. INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA

Kontsultak Udaleko Hezkuntza Zerbitzura zuzendu daitezke: 945 161 227 eta 945 161 230 edo hezkuntza@vitoria-gasteiz.org

17. ITZULTZEA

Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean 40. artikuluan adierazitako kasuetan, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, eta berandutze-interesak eskatuko dira, dirulaguntza ordaintzen denetik itzuli behar dela erabakitzen den egunera arte, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera arte, hura baino lehenagokoa bada, dirulaguntzei buruzko araudi orokorrean eta administrazio-prozedura erkidean xedatutakoaren arabera.

Jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzuli behar badira, Kutxabankeko udal-kontu honetan egingo dira: ES03 2095 0611 03 1090952416; ondoren, diru-sarreraren egiaztatzea aurkeztuko dute Hezkuntza Zerbitzuan.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du helbide honetan: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/ <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección:</i> https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/ Agiri honek sinadura elektronikoa darama Sinadura Elektronikoa buruzko azaroaren 11ko 6/2020 Legearen haritik onartua. <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020 de 11 de noviembre reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	MARIA JESUS PORTILLO TORRE (Jefatura de Servicio de Educación)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Seguru) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	04/06/2026 13:13:28
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	11/11
 XZKP53V6B4VDQR7DRL2H5SA5YQ			